

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzena edo egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (8. orrialdean) erantzun-taulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

1. *Ez daukagu zer galdeturik.* Bestela esanda:

- a) Ezin dugu galdetu.
- b) Ez daukagu galdetzerik.
- c) Ez dugu ezer galdetzerik.
- d) Ez daukagu ezer galdetzeko.

2. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?

- a) Lapurrek ongi zekiten nola etxe hartan sarrera bi zirela.
- b) Ezkondu beharra izan zuten, auzokoek zer esango zutenaren beldur.
- c) Ezin izan nion, ba, barreari eutsi!
- d) Pozik itzuli ziren lasterketatik, zeren parte hartzea zelako garrantzitsuena.

3. *Hain da gosetia, _____ txahal bat janda ere ez _____ aseko.*

- a) non / litzateke
- b) zeren / bailitzatekeela
- c) ezen / bailitzateke
- d) zergatik / baita

4. Esaldi hauetatik, zein dago GAIZKI idatzia euskara batuan?

- a) Kaurismakiren filmetaz hitz egin dugu zineklubean.
- b) Kaurismakiren filmei buruz hitz egin dugu zineklubean.
- c) Kaurismakiren filmez hitz egin dugu zineklubean.
- d) Kaurismakiren filmen gainean hitz egin dugu zineklubean.

5. _____ *egositako ogia oso gozoa geratzen da.* Zein da egokia Hegoaldeko euskaran?

- a) Esnean
- b) Esnez
- c) Esnearekin
- d) Esnetan

6. *Gonbidapena _____ bidali zion, ez idazkariak.* Aukeratu erantzun zuzena:

- a) zuzendariak bera
- b) zuzendari berberak
- c) zuzendari berak
- d) zuzendariak berak

7. Zein hitz bikote EZ da egokia?

- a) Zeru izartua.
- b) Zuhaitz lerdena.
- c) Urmael burrunbatsua.
- d) Bidezidor meharra.

8. *Katuak ez dira nire gustukoak: are gehiago, _____*. Aukeratu zuzena:

- a) beldurtzen didate
- b) beldurra ematen naute
- c) beldur diet
- d) beldur naute

9. Honako multzo hauetako batean hitz batek EZ du zerikusirik besteekin, esanahiari dagokionez. Aukeratu multzo hori:

- a) Itsasadar, itsasbide, itsaskor, itsasargi.
- b) Enbor, hosto, adaburu, hostotza.
- c) Errekasto, ur-jauzi, ur-laster, ibai.
- d) Gogo, irrika, grina, desio.

10. Euskara batuan, zein dago zuzen idatzia?

- a) Gizon gaiso hura gaizki ezerita zegoen.
- b) Jezarri zaitez haltzari horren gainean.
- c) Aritz ihar horren hostoak laster jausiko dira.
- d) Hostoak jausi zaizkion haritz lehor horren ondora hurbildu da.

11. Hitz zerrenda hauetako zeinetan daude ortografia-akatsak?

- a) saguzarra, serbitzua, garraisia.
- b) sinetsi, indartsu, txosna.
- c) hondartza, haragia, oihana.
- d) bukatuz gero, poz-pozik, orduz ordu.

12. Zein da gutun hasiera egokia?

- a) Kaixo Miren, aspaldiko:
- b) Kaixo, Miren, aspaldiko:
- c) Kaixo Miren aspaldiko:
- d) Kaixo Miren, aspaldiko,

13. *Irakasleak azterketa egiteko hiztegia erabiltzen utzi _____, hobeto egingo nuen.*

- a) balit
- b) bazidan
- c) balidate
- d) badit

14. *Jakinduria handiaren jabe izan nahi badute, irakur_____ filosofiako liburuak.*

- a) dituztela
- b) bezate
- c) ditzatela
- d) dezatela

15. *Esan genuenari eutsiz, orain lotuko _____ eskutitz horiek idazteari.*
- a) dizkiogu
 - b) diogu
 - c) gatzaizkio
 - d) dugu
16. Nola idatzi behar da aditz hau euskara batuan?
- a) Itoarazi
 - b) Ito erazi
 - c) Ito arazi
 - d) Ito-arazi
17. Esaldi hauetatik, zein EZ da egokia euskara batuan?
- a) Honezkero Parisen izango da.
 - b) Honezkero Parisera iritsiko zen.
 - c) Honezkero, Parisetik itzultzen ari naiz.
 - d) Honezkero Parisera iritsia behar du.
18. Marratxoaren erabilerari dagokionez, zein EZ da zuzena?
- a) Pausoz-pauso, kalerik-kale.
 - b) Gaur-gaurkoz, han-hemenka.
 - c) Alfer-alferrik, poz-pozik.
 - d) Markina-Xemein, Ezkio-Itsaso.
19. *Txile eta Brasil daude Hego Amerikako Barne Produktu Gordinaren _____.*
- a) batezbestekotik gora
 - b) baten bestekotik gora
 - c) bataz bestekotik gora
 - d) batez bestekotik gora
20. Zein hitz dago GAIZKI idatzia?
- a) ostu
 - b) sustatu
 - c) atzamar
 - d) jezarri
21. Letra larrien erabilerari dagokionez, zer esalditan dago akatsen bat?
- a) Parisera maiatzaren 8an joanen gara.
 - b) Aste santuan opor politak pasatu genituen.
 - c) Manifestazio ikaragarria izan zen Maiatzaren Lehenean.
 - d) Joan XXIII.ak oso osasun makala zuen.

22. *Irakasleak aditz horren erabileraz _____.* Nola da euskara batuan?

- a) ohartarazi gintuen
- b) oharterazi gintuen
- c) ohartu zigun
- d) oharrarazi zigun

23. *Zezenak buruan eman zion kolpea eta _____ erori zen.* Osatu hutsunea:

- a) porru eginda
- b) lur jota
- c) ziplo
- d) di-da

24. *Ipuin honetan igela _____ bihurtzen da.* Osatu hutsunea:

- a) printzea
- b) printzean
- c) printze batean
- d) printzerik lirainena

25. *Ba, egia esan, ez dakigu bihar Andoni _____.* Osatu hutsunea:

- a) badator
- b) etorriko denikan
- c) etorriko den
- d) etorriko bada

26. *Utzi bakean, ez _____ inori esango!* Zein da egokiena?

- a) diodala
- b) diodalako
- c) diot-eta
- d) diodan

27. *Gezurretan eta azpijokoan ibiltzen _____ al zara zu ere?* Aukeratu egokiena:

- a) denekoa
- b) direnetakoa
- c) dena
- d) zarenetakoa

28. *Nik badakit hori, baina beste edonork ere jakin lezake.* Aukeratu baliokidea:

- a) Nik izan ezik, beste edonork jakin lezake hori.
- b) Nik izan ezik, beste edonork ere jakin lezake hori.
- c) Nik ezik, edonork ere jakin lezake hori.
- d) Nik ez ezik, beste edonork ere jakin lezake hori.

29. Aita, har _____ besoetan, nekatuta nago eta! Osatu hutsunea:
- a) nauzu
 - b) iezadazu
 - c) nazazu
 - d) nakizun
30. Josunek, kalean ikusiz gero, ez _____ agurtuko. Osatu hutsunea:
- a) gintuzke
 - b) liguke
 - c) gintzake
 - d) genuke
31. Ahalegindu zara. _____, ez duzu gauza handirik lortu. Osatu hutsunea:
- a) Haatik
 - b) Orobat
 - c) Izan ere
 - d) Hortaz
32. Ez gara ospakizun horretara joan, ez _____ gonbidatu. Bakarra da zuzena euskara batuan.
- a) bait gaituzte
 - b) baikaituzte
 - c) baitgaituzte
 - d) baigaituzte
33. Aukera batean EZ dago ortografia-akatsik. Zeinetan?
- a) Urtxintxa, bonbilla, hospitale, hosto.
 - b) Serbitzu, hodei, esperientzia, istorio.
 - c) Tortilla, engainatu, lehiaketa, ahari.
 - d) Ahur, suspertu, itsaso, txanpu.
34. Unibertsitatean _____ kontratua egin didate. Osatu hutsunea:
- a) behin-behineko
 - b) behin-betiko
 - c) behin behineko
 - d) behin-betirako
35. _____ diru gehiago izan, _____ gehiago gastatzen dugu. Osatu hutsuneak:
- a) Gero eta / gero eta
 - b) Orduan eta / orduan eta
 - c) Gero eta / hainbat
 - d) Zenbat eta / orduan eta

36. Lana bukatu ondoren, afaltzera joan ziren. Honako esaldiotatik zein EZ da baliokide?

- a) Lana bukatuz, afaltzera joan ziren.
- b) Lana bukatuta, afaltzera joan ziren.
- c) Lana bukaturik, afaltzera joan ziren.
- d) Lana bukatutakoan, afaltzera joan ziren.

37. Proba hura ezin burutuko _____ beldur ziren. Aukeratu egokiena:

- a) zutenaren
- b) zuten
- c) zutela
- d) zutelaren

38. Gurean bai, baina _____ ez dugu horrela jokutzen. Aukeratu egokiena:

- a) besteen etxetan
- b) besteren etxean
- c) bestearen etxean
- d) besteren etxetan

39. Gizaki modernoak hiria utzi eta _____ itzuli behar du. Aukeratu zuzena:

- a) izadiarengana
- b) izadiagana
- c) izadira
- d) izadiara

40. Noiz da afaria?

- a) Martxoak 8an, gaueko 9:30etan.
- b) Martxoaren 4an, gaueko 9:30ean.
- c) Martxoaren 4ean, gaueko 9:00etan.
- d) Martxoak 8, gaueko 9:15etan.

41. Praktikak _____ asko ikasten da. Osatu hutsunea:

- a) egiten
- b) egiteagatik
- c) eginez
- d) egiteaz

42. Gure etxe ondoan badaude neskato batzuk, _____ .

- a) zuk ezagutzen dituzula
- b) zeinak ezagutzen dituzu
- c) zuk ezagutzen duzunak
- d) zuk ezagutzen dituzunak

43. Aukeratu ezazu egokiena.
- a) Asun menditik zetorrela erori zen.
 - b) Asun, menditik zetorrela, nire laguna da.
 - c) Asunek, menditik zetorrena, ez ninduen agurtu.
 - d) Asun, agurtu ninduenak, menditik zetorren.
44. Esaldi hauen artean, zein dago GAIZKI?
- a) Zortzi lagunetatik onena azkena izan da.
 - b) Zortzi lagunetan onena azkena izan da.
 - c) Zortzi lagunetarik onena azkena izan da.
 - d) Zortzi lagunengandik onena azkena izan da.
45. _____ *konfiantza galtzerik nahi ez baduzu, esaiozu dakizun guztia.*
- a) Zuregana
 - b) Zureganako
 - c) Zurekingo
 - d) Zuri buruzko
46. Ez zuen etsi, _____ aukera guztiak agortu _____. Aukeratu egokiena:
- a) nahiz eta / arte
 - b) baita / ere
 - c) nahiz eta / ere
 - d) harik eta / arte
47. *Ekintzak behar den bidetik _____, argia eta egia behar dituzte gidari.*
Zein da egokiena?
- a) joango balira
 - b) badoaz
 - c) joango badira
 - d) joaten badira
48. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?
- a) Ikerlari batzuk proposatu dute irtenbide hori.
 - b) Ikerlari batzuek proposatu du irtenbide hori.
 - c) Ikertzaile batzuek proposatu dute irtenbide hori.
 - d) Ikertzailearen batzuk proposatu dute irtenbide hori.
49. Esaldi hauetatik, zein da egokia euskara batuan?
- a) Ikasleriaren % 60a kontra dago.
 - b) Ikaslegoaren % 60 kontra dago.
 - c) Ikaslegoaren % 60a kontra dago.
 - d) Ikasleriaren % 60 kontra dago.
50. Ondoko egituretako batean letra larriak ongi erabilia daude. Zeinetan?
- a) Bermeoko Udala.
 - b) Maiatzetik Ekainera.
 - c) Gasteizko Aireportua.
 - d) Gazte Italiarrak.

ASKOTARIKO ITEMAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta adieraz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra hiru testuen ondoren (15. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

1. TESTUA:

01/01/4000

Goian duzuen data da, eta duzuen eran, nik EHUrekin indarrean dudan kontratuaren epemuga. Data txundigarria mesedez egiaztatzeko eskatu diot idazkariari, ikerketa-proiektu baterako bete beharreko paperak tarteko, datu ofizial hori jakin beharra baitaukat. Data horixe dela berretsi dit idazkariak, ez naizela langile bakarra kode hori duena.

Badaezpadako beste kontsulta bat egin, eta dataren datu miresgarria egiaztatu didate: unibertsitatearen sistemak ageri duenez, 4000ko urtarrilaren 1a da nire kontratuaren bukaera-data. Paperak txukun bete behar baitira, zientzia akademikoa egiteko asmoz zientzia-fikzioaren legea bete dut azkenean, eta data galaktikoa ezarri dut paper ofizialean.

Bitxiena, baina, ondotik etorri da. Hilezkor sentitzen hasi naiz orduan eta betiereko morroi ikusi dut neure burua, kontratuak dioena nahitaez betetzera kondenatua. Hala, aurretik nituen eskubideak galduz joan naiz XXI. mendean barrena. Prekarietateak eragindako eldarnioei eusteko aski indarririk ez izaki, konortea ere galdu dut.

Zorionez.

Edu Zelaieta
Argia, 2017/07/16
(moldatua)

1. Nola dago idazlea?

- a. Kezkatuta, EHUrekin duen lan-hitzarmena iraungitzear duelako.
- b. Konforme, erantzun diotenarekin paperak betetzen ahal dituelako.
- c. Harrituta, datuak zuzenak izatea sinestezina iruditzen zaiolako.

2. Zer dela eta jo du idazkariarengana?

- a. Argibideak eskatzera.
- b. Paperak betetzera.
- c. Okerrak zuzentzera.

3. Zein da idazlearen kezka?

- a. Kordea galdu arte lanean aritu behar izatea.
- b. Lan-baldintzek egoera are okerragora eramatea.
- c. Sistema akademikoa zientzian oinarrituta egotea.

2. TESTUA:

Hitzezko harresiak

Aitona-amonek etxe malgua eraiki zuten mendian, eta askatasun-eremu bat sortu zuten. Sendiaren beharren arabera, gela berriak agertzen ziren urte batetik bestera. Etxe hura paradisua zela esan zitekeen. Baina harresi handi batek zedarritu egiten zuen. Han ikasi nuen zein gozoa den aske sentitzea eta zein garrantza, berriz, irudipenari eusten dion gezurra. Etxea bera baino askoz zaharragoa omen zen harriz harri egindako lan hori. Inork ez zigun argi esan zertarako zen, baina guk susmoa hartzen genion. Izan ere, lantzean behin haurrak inguratzen ziren gurera, eta oin-puntan jarrita zelatatzen zuten gure jolasgunea.

Aitona-amonen etxea ote da Europa berria? Etxe komuna omen zen, denon artean eraiki beharrekoa, guztiok goxo hartuko gintuena. Omen. Izan ere, Europar Batzordeak «Bizimodu Europarraren Defentsa» saila sortu du. Ez du, baina, argitu European diren hamaika bizimoduetatik zein den defenditu behar dena. Esan gabe, ordea, norengandik defenditu behar dugun argiro eman du aditzera.

Aitona ez zen kapaz izan esateko zertarako balio zuen etxeko harresiak, agian artean ez zegoelako deus ere esan gabe den-dena esaten duen hizkuntza mordoilo molde berria. Hiru hitz horiek, aldiz, argi uzten dute non gauden gu eta zeren beldur garen. Harresiaren barrutik, balizko askatasunaren esne-mamitan hazitakook asmatu dugu sail berriaren izendapena.

Agian, proiektua bera baino zaharragoa da orain begien aurrean ageri zaigun hitzezko hesi hori, eta hasieratik beretik askatasun-eremu pribatua zen European proiektioa, baina inozok besterik ere izan zitekeela sinetsi genuen. 2000. urtean Europak «Aniztasunean bat eginda» leloa hautatu zuen herrien arteko aliantzaren zioa azaltzeko. Europa osatzen duten herrien arteko desberdintasunak ontzat ematen zituen, eta horren gainean batasun-egitasmoa eraikitzeko promesa egin zuen.

Egiak deskubritu egiten dira, eta gezurrak, berriz, eraiki. Harresiak bezala. Etxe hartan ikasi nuen norberarentzat gozagarri dena beste norbaiten bizkar izaten dela. Kaltetuak berberak dira beti: gotorlekuaren beste aldean egotera kondenatutakoak. Europa inguratzen duen harresia ez da (oraindik) fisikoa, eta iritsiko da unea zeinean ez dugun jakingo zertarako gotortu ginen orube horren barruan.

Pilar Kaltzada
Berria, 2019/09/19
(moldatua)

4. Nolako oroitzapena du idazleak aitona-amonen etxeari buruz?
 - a. Ona, bertan jolastoki handia zegoelako ume guztientzat.
 - b. Gazi-gozoa, ezinezkoa zelako kanpoko umeekin jolastea.
 - c. Txarra, inguruko hesi altuak ez ziolako libre sentitzen uzten.

5. Idazlearen ustez, zertarako sortu du Europar Batzordeak sail berria?
 - a. Kideen aniztasuna bermatzeko.
 - b. Bizimoduaren eredia adosteko.
 - c. Beste herrietatik babesteko.

6. Zer jarrera erakusten du idazleak Europarekiko?
 - a. Betidanik izan du fedea batasunaren proiektuan.
 - b. Iruditzen zaio ez dela bete hasieran agindutakoa.
 - c. Kezkatuta dago hortik kanpo geratu direnengatik.

3. TESTUA:

Loa, atsedena baino askoz gehiago

Loak ez balu funtzio guztiz ezinbesteko bat izango, eboluzioaren akatsik handienetako bat litzatekeela esan zuen 1978an Allan Rechtschaffen loaren ikertzaile aitzindariak. Ez da eboluzioaren akatsa, jakina. Azken urteetako ikerketei esker, gero eta argiago dugu ez ditugula alferrik pasatzen lo ia 30 urte.

Joaquín Durán-Cantollak, BioArabako Ikerketa Zerbitzuen buruak eta Eduardo Anitua Klinikako Loaren Unitateko zuzendariak, argi du zergatik: “Gure osasunarentzat ezinbesteko jarduera da; osasuna bermatzen duten hainbat prozesu metaboliko eta biokimiko gertatzen dira lo gaudenean”. Loaren funtzioak asko eta garrantzitsuak dira. Funtzio ezagunenetako bat memoria prozesatzea eta finkatzea da. “Memoriaren garbiketa egiten du garunak, behar ez dituen edo komeni ez diren oroitzapenak ezabatzen ditu”, dio Durán-Cantollak.

Memoria baino gehiago ere garbitzen du, ordea, garunak loaldian. 2013an Maiken Nedergaard ikertzaileak pentsatu zuen oso arraroa zela sistema linfatikoa garunera ez iristea. Izan ere, sistema horri esker kanporatzen dituzte hondakinak gorputzeko zelulek. Garunak ere hondakinak kanporatzeko antzeko mekanismoren bat izan behar zuela pentsatuta, haren bila hasi zen Nedergaard saguen garunetan. Eta aurkitu zuen saguak lo zeudenean garuneko zelulak uzkurto egiten direla eta zelulen arteko espazioa % 60 handitzen dela; horri esker, zelulen arteko fluidoak errazago mugitzen da, eta garunean pilatzen den zaborra garbitzen du. Sistema glinfatikoa deitu zioten, glia-zelulek prozesu horretan duten garrantziagatik.

Garbiketa-sistema hori oso garrantzitsua izan daiteke, garunean pilatzen den zaborrarekin lotura baitute hainbat gaixotasunek. Alzheimerra, esaterako, β -amiloideen eta Tau proteinen pilaketarekin lotuta dago. Eta, hain zuzen ere, loaren eta alzheimerraren arteko lotura agerian jartzen duten ikerketa asko daude; nahiz eta oraindik ez dagoen guztiz garbi zer den lehenago, arrautza ala oiloa. “Alzheimerrak, gaixotasun psikiatriko ia guztiek bezala, loa asaldatzen du; loaren asaldurek alzheimerra eragin dezaketela esatea, berriz, gaur egun, gehiegi esatea da”, dio Durán-Cantollak.

Egoitz Etxebeste Aduriz

2019/06/01, *Elhuyar* aldizkaria (moldatua)

7. Allan Rechtschaffenek esan zuen loa eboluzioaren akatsik handienetako bat litzatekeela, funtzio garrantzitsurik...
- a. izan ezean.
 - b. izanez gero.
 - c. izanda ere.
8. Testuaren arabera, baieztapen hauetako zein da egia?
- a. Saguen burmuinek badute sistema linfatikoa.
 - b. Gizakion burmuinean ez da hondakinik sortzen.
 - c. Gizakion garunean ez dago sistema linfatikorik.
9. Durán-Cantollaren ustez, esan daiteke...
- a. alzhemerrak loa nahasten duela.
 - b. loaren asaldurek alzhemerra dakartela.
 - c. Aurreko aukera biak.
10. Zer ondorio atera dezakegu testuko informaziotik?
- a. Gaixotasun psikiatrikoak saihesteko onena lo egitea da.
 - b. Loak lagundu egiten dio burmuineko garbiketa-sistemari.
 - c. Memoria-garbiketak alzhemerra agertzea erraztu lezake.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako **BAT** hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez **300 hitzeko** idazlan bat egin, euskara batuan. **A** edo **B** aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. **Ongi lotu idazlana gai horri.**

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat **aldizkari** bat ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta eskatu dizute zure arloko edo intereseko gairen baten berri eman dezazun artikulu batean. Dibalgazioan ari zara (ez testu akademiko bat prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Egoitza-auzoen diseinua	Egitura metalikoak eta zurezko egiturak: Nola eragiten die suak?
Artea	Picassoren <i>Guernica</i>	Arte kontzeptuaren bilakaera
Biologia	Gai eta organismo transgenikoak	DNA. Mutazioak. Zer eragin dute?
Ekonomia	Ekonomiaren planifikazioa	Inbertsio-proiektuak hautatzeko irizpideak
Filologia	Lexikografia eta ondare lexikoa: maileguak eta kalkoak	XXI. mendeko literatura
Filosofia	Erlatibismoaren inguruko eztabaida	Gaurko filosofoak
Fisika	Zer ikertzen du fisikak gaur egun?	Fluidoak
Geografia	Euskal Herriaren geografia: ezaugarri nagusiak eta ezaugarri horien ondorioak	Geografiak gizakien bizimoduan duen eragina
Geologia	Zer dira mineralak? Zein da haien erabilgarritasuna?	Geomorfologia
Gizarte-zientziak	Demokrazia munduan gaur egun	Gizarte- eta kultura-aldaketak
Heziketa fisikoa	Dopina kirolean	Jarduera fisikoa eta ongizate psikologikoa
Historia	Industria-iraultza	Aro berriko erlijio-gerrak
Informatika	Informatikaren sorrera eta garapena	Datu-egitura linealak: listak, pilak, ilarak
Informazioa	Izan daiteke objektiboa irriti edo egunkari bat? Kazetaritzaren objektibotasuna	Ordainduta ikusteko programak ala publizitatearen bidez finantzatutako telebista?
Kimika	Zer da kimika organikoa?	Gas idealen propietateak
Kriminologia	Biktimei arreta eskaintzeko zerbitzuak	Kriminologia eta delitu informatikoak

Lan-harremanak	Enplegu-politikak	Laneko arriskuen prebentzioa
Matematika	Egitura aljebraikoak	Matematikaren didaktika
Osasuna	Beldurrak eta fobiak: motak, arriskuak, sendabideak	Higienea eta bizimodu osasuntsua
Pedagogia	Pentsamendu pedagogikoa	Eskola 0 eta 2 urte artean
Psikologia	Adimena neurtzeko bideak	Zer dakizu psikologia esperimentalaz?
Teknologia	Errodamenduak: erabilera eta motak	3D inprimatzea
Zuzenbidea	Kontsumitzaileak babesteko legeak	Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA:

NAN-zenbakia:

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. azterzailea

2. azterzailea

3. azterzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: